

Internetek hilda dauden soldaduak berpiztu ditu nobela historikoen egile hilakatzeko. Bill Lamin izeneko irakasle batek, bere aitonak –Harry Lamin britainiar gudarosteko soldaduak– I. Mundu Gerran idatzitako eskutitzekin bloga osatu du 90 urte beranduago. Telesail zirrara garrienen antzera milaka irakurlek egunero dute zita webgunean, Laminen gorabeherak ezagutzeko irrikaz. Gutun sorta herria noiz ailegatuko zain, kezkaz beterik, historiak erabat harrapatuta. Soldadua onik bueltatuko ote da etxera?



Harry Lamin britainiar soldadua.

Aitonaren batailak.blogspot.com

ANDER ALTUNA

I. MUNDU GERRAN parte hartu zuten soldaduen eta euren familien arteko komunikazio hari bakarra gutun bidezkoa izan zen. Urteak pasa ahala, notiziak geroz eta ustelagoak: guda amaitu ez eta hildakoak milioika. Nola egongo ote da? Zauriturik ala honezkero hilda? Ezinegonak harturiko galderak, onik izango ote zenaren esperantzaz. 90 urte beranduago, galdera berberak egiten dituzte www.wwar1.blogspot.com blogeko irakurleek. Bitakora horren protagonista Harry Lamin da, Yorkshire-ko errejimentuko soldadu britainiarra. Guden gudan parte hartu zuen eta sasoi beltz horretan bere familia eta lagunei idatzi zituen eskutitzak irakurgai jarri ditu helbide horretan bere biloba Bill Laminek. 59 urteko informatika irakaslea da eta bere aitonak idatzi zituen hilabete eta egun berean ari da

jartzen eskutitzak sarean. “Eskolako historiako irakasleek iradoki zidaten gerrako gutunak informazio iturri baliagarriak zirela oso. Duela egun batzuk guztiak batu, antolatu eta bloga sortu nuen”, adierazi zuen Argentinako *Clarín* egunkarian orain sei hilabete.

Uneotan, Harry Lamin soldadua Italian dago eta gorriak ikusi ostean onik da: “Astea biziki gogorra izan da, Sommeko batailan aurrera egin genuenean baino lazgarriagoa. Gizon asko hil dira, baina geureganatzeko esan ziguten tokia hartu dugu”, idatzi zuen 1917ko ekainean. Messinako muinoetan izandako odol isuriaz ari da. Britainiar armadarentzat Sommeko erreka- inguruko borroka historiako odoltsuenak izan dira, bi bandoek milioi bat gerlari lurperatu zituzten eta historiako tes-

tuliburuek horrela jaso dute, baina Lamin soldaduairen hitzetan, Yorkshireko gudarostearentzat Sommeko sarraskia baino are eta krudelagoa izan zen Messinako borroka. Otsailan bidalitako gutun sortan, bere anai-arrebei eskerrak eman dizkie janaria bidaltzeagatik; ongi dabilela eta eguraldi hotza epeltzeko desiratzen dagoela adierazi du.


Gutun bakoitzaren ostean, internautek iruzkinak idazten dituzte. Asko AEBetatik bidalitakoak, gudaren arrasto umelak familia ugari izoztu zituelako. Horietako batek dionez, “umea nintzenezan gerla hura loriatsua izan zela irakatsi zidaten. Orain badakit guztiz kontrakoa izan zela eta horrelaxe irakatsiko diet nire seme-alabei”.

Orain urte askotako gertaerak gaurkotatzen dituzte irakurleek. “Orain gertatuko balitz bezala, guztiz engantxatuta daude”, dio Bill Laminek. Unean bertan gertatuko balira bezala jarraitzen dituzte Harry Laminen gorabeherak, Lev Tolstói-*ren Gerra eta bakea* nobelako pertsonaienak balira bezala. Lamin soldaduairen bizipenak benetakoak dira, pertsonaiak eta batailak ez dira asmatuak, guda bertatik bertara bizi izan baitzuen. Baina irakurleek telesail baten antzera jarraitzen dute: gutun bakoitza atal moduko bat da. Protagonistari zer gertatuko ote zaion beldur dira jarraitzaileak, kezkatu: bizirik aterako ote da? Soldaduairen heriotzaren berri ematen duen notifikazioarekin itxiko al du bloga? Halako kezka plazaratzen dituzte irakurleek. Bill Lamin egileak jakinarazi duenez ez du ezer aurreratuko, eta soldaduairen abenturak blogean bakarrik jarraitu ahalko dira. Ezin jakin bihar eskutitzik izango ote den. Eguneroko intrigarekin bizi dira irakurleak. Hori bai, telesailaren korapiloa askatzen gertu da, gerla “aurten” amaituko delako.

Zer ikusi hura ikasi

Bitakorak bazter guztiak astindu ditu. Milaka irakurleren *Goenkale* bilakatu da, eta nazioarteko hedabideetako erreportajeen bazka:

ARD telebista kate alemaniarrek, CBC kanadarrak, BBC britainiarrek eta NBC estatubatuarrek hitz egin dute gaiaren inguruan, baita Espainiako *El País* eta Argentinako *Clarín* egunkariek ere. Datuak emate-



Gerrako eskutitzak Interneten jartzen dituzten hiru blog. Eskuizkribuak bidali ziren egun berean jartzen dituzte sarean, irakurlea egunero jakinminetz utzi.

rakoan ez dira ados jarri irakurle kopuruan. Batzuentzat 200.000 lagun elkartzen dira egunero, beste batzuentzat milioi bat inguru. Zifra bat izan edo beste, Bill Lamin aitzindaria izan da eta bere aitona telebistako saio erakargarrienen pareko gidoilari bihurtu du. Jarraitzaile kopurua handia da oso. Eta harria altxatzerakoan inurriak atera nola, hala hedatu da bitakoraren arrakasta sarean. Irakurleek antzerakoak sortu dituzte, protagonista ezberdinekin, noski.

www.aefinsiberia.blogspot.com helbidean, Matt Boyle izenarekin sinatzen duen blogari batek bere aitona George C. Voegeli AEBetako soldadua I. Mundu Gerran Siberiatik bidali zituen gutunak eskegi ditu sarean. Soldadu horien zeregina AEBetako interes militarrek babestea zen, etsaien –boltxevikak, japoniarrek, kosakoak– hatzaparretan eror ez zitezen. Horrelaxe aurkeztu du bloga egileak.

www.captainrussell.blogspot.com bitakoraren egileak bestalde, II. Mundu Gerra bukatuaren Frantziako frontean izan zen Wallace Russell AEBetako kapitainaren gutunak jaso ditu.

Zinemako superproduktzioetan oinarriak historikoak izan arren egiantzekotasunarekin jolasten da, sinesgarritasuna lortzearekin. Eskutitzak aldiz patrikak aberasteko inolako intentziorik gabeko lekukotasunak

baino ez dira, benetako bizipenak, inongo makillaje eta efektu berezirik gabeak. Ez dute egiarekin antza izan beharrik, egiazkoak direlako. Beharbada hori izan daiteke arrakastaren giltzarria. ■

Irakurleek telesail baten antzera jarraitzen dituzte blog hauek: gutun bakoitza atal moduko bat da. Protagonistari zer gertatuko ote zaion beldur dira jarraitzaileak